



EGUZKILORE

(Flor protectora contra las fuerzas negativas)

Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología
San Sebastián, N.º 9 Extraordinario - Diciembre 1996.

“Homenaje a Julio Caro Baroja y José Luis L. Aranguren”

- **A. Beristain.** “A dos Maestros: Julio Caro y J.L. L. Aranguren” 7

ACTO ACADÉMICO EN HOMENAJE A JULIO CARO

- **J. M^º Bandrés.** “Julio Caro: intelectual y humanista” 13
- **A. Beristain.** “Amores de don Julio (1914-1995) 19
- **J.A. Garmendia.** “Evocación y Homenaje a Julio Caro” 31
- **J. Garmendia Larrañaga.** “Barojatzaz, oroipen maitasunez” .. 39
- **J.L. Munoa.** “Julio Caro: intelectual independiente” 45
- **P. Caro Baroja.** “Las canciones de las novelas de Pio Baroja” .. 51

PUBLICACIONES DE J. CARO BAROJA EN EL IVAC-KREI

- Procesos y causas por brujería y testificaciones infantiles 61
- Prólogo a *Crisis del Derecho represivo* 77
- Prólogo a *Fuentes de Derecho penal vasco (Siglos XI-XVI)* 83
- Otro trago amargo 91
- Cárceles y asociaciones criminales en el pasado y en el presente 101
- Releyendo textos sobre el libre albedrío y la libertad 129
- El terror desde un punto de vista histórico 139
- El terror desde un punto de vista etnológico 157
- Prólogo a *De Leyes penales y de Dios legislador* 175
- 42 años junto a mi tío 181
- Fantasías y lucubraciones en torno a San Ignacio de Loyola 189

PUBLICACIONES DE J.L. L. ARANGUREN EN EL IVAC-KREI

- Prólogo a *Ciencia penal y Criminología* 201
- El problema de las drogodependencias en el momento actual 207
- La historia de la universalización de los Derechos Humanos 225
- Cuestiones fundamentales desde la ética 243
- Ética y Derechos Humanos 259

EGUZKILORE

Número Extraordinario 9.
San Sebastián
Diciembre 1996
39 - 43

JULIO CARO BAROJATZAZ, OROIPEN MAITASUNEZ

Juan GARMENDIA LARRAÑAGA

Tolosa (Gipuzkoa)

Resumen: Se realiza una breve reflexión sobre diversos aspectos de la vida y la obra de D. Julio Caro: su estrecha relación con el Instituto Vasco de Criminología, su extensa y excepcional obra, su amor al euskera, y su trabajo como Director de la Revista Internacional de Estudios Vascos durante doce años. Finalmente, se muestra lo que Caro Baroja representó en el mundo de la cultura, como investigador y pensador claro y admirable, y su amor a la verdadera amistad.

Laburpena: On Julio Caroren bizitza eta lanaren arlo desberdinei buruzko gogoeta labur bat burutzen da: Kriminologiaren Euskal Institutuarekiko berak izandako harreman estua, bere lan zabala eta apartekoa, bere euskerarekiko maitasuna, hamabi urtez Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkarian bere zuzendari lana. Azkenik, kultur munduan Caro Baroja, ikertzaile eta pentsalari argi eta ikusgarria bezala, izan zenari buruz eta benetazko adiskidetasunaz mintzatzen da.

Résumé: On mene une brève réflexion sur différents domaines de la vie et l'oeuvre de M. Julio Caro: son étroit rapport avec l'Institut Basque de Criminologie, son vaste et exceptionnel oeuvre, son amour pour la langue basque, et son travail comme Directeur de la Revue Internationale des Études Basques pendant douze années. Pour finir, on montre ce que Caro Baroja représentait dans le monde de la culture, comme chercheur et penseur clair et admirable, et son amour pour la véritable amitié.

Summary: A short reflection about different sides of the life and works of M. Julio Caro Baroja is made: his close relationship with the Basque Institut of Criminology, his large and exceptional work, his love to the Basque language, his labour as Director of the International Journal of Basque Studies for twelve years. Finally, it is pointed out what Caro Baroja meant to the culture world, as a clear and admirable researcher and thinker, and his love to the real friendship.

Palabras clave: Instituto Vasco de Criminología, Revista Internacional de Estudios Vascos, Cultura, Pensamiento, Amistad.

Hitzik garrantzizkoenak: Kriminologiaren Euskal Instituta, Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria, Kultura, Pentsamendu, Adiskidetasun.

Mots clef: Institute Basque de Criminologie, Revue Internationale des Études Basques, Culture, Pensée, Amitié.

Key words: Basque Institut of Criminology, International Journal of Basque Studies, Culture, Thought, Friendship.

“Yo he estado a punto de nacer en Vera de Bidasoa, y desde que tengo memoria la casa de Vera para mí ha sido la casa familiar por excelencia. He vivido allí casi la mitad de mi vida y allí moriré probablemente.”

Julio Caro Baroja: “Una vida en tres actos”

1995eko abuztuaren 18ko egunsentian gertatutako berri txarrak, izugarritzko goibeltasunaz bildu gintuen. Dakigunez, egun hartan On Julio Caro Baroja hil zen Berako Itzea etxean.

Topikoaren trazak hartzeko arriskua egonda ere, esan beharra daukagu Julio Caro Barojarengan, ordezkia ezinezko gizona izan dugula kultur alorreko kezketan, kultura ikuspegi zabal eta aberatsetik begiratuta, diziplina jakin batean sailkatzen zaila, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Madriren Pío Baroja artean hil berria, adiskide on batek eraman ninduen Itzea-ra. On Pío-ren oroimena beti bizirik etxe hartan, bere oroitzapenen inguruan mugitzen ginen.

Ordurako irakurrita nituen Pío jaunaren lan batzuk, eta Itzean bertan laister izan nuen Julio Caro Baroja jauna aurrez-aurre ezagutzeko aukera, orduko agurra urte-etan sendotutako adiskidetasuna bihurtu arte. Eta diot aurrez-aurre ezagutu, aurretik ezagutzen bainuen argitaratuta zituen ikerketen bidez, nire ikerketa historiko-etnologikoetan hain erabilgarri bezain beharrezkoak izan diren idatziak.

Julio Caro Barojari buruz hitzegindakoa eta idatzitakoa ez da gutxi izan, azkenaldi honetan batez ere.

Zer nolako harremanak izan zituen Julio Caro Barojak Kriminologiaren Euskal Institutoarekin? Harreman sendoak. Julio Caro Barojak berekin zeraman bizi-bizirik Elkarte hau, Kriminologiaren Euskal Instituto hau.

Kriminologiaren Euskal Institutoa hurbiletik, barnetik hobeto esateko, jarraitu zuen.

Julio Caro Baroja nire adiskide eta maisuaren biografia eta bibliografia hortxe daude, ezagutu nahi dituenaren esku, eta guztiak aipatzea, azaletik bada ere, nire gaurko saioaren mugetatik kanpo dago. Beste hainbeste esan genezake jaso zituen titulu eta aipamenei buruz, kulturaren alorrean egin zuen bide nekazinararen aitorenpena izan baitziren.

Berri xamarra delako, aipatuko dut Nafarroaren inguruko lanekin ateratako liburua, *Príncipe de Vianak* argitaratua, *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Pío Caro Barojak berak eta Fernando Pérez Ollok egindako sarrerekin; horrekin batera, gogoratu behar da Julio jaunak jaso-zuen Eusko Ikaskuntza Lankide Aurrezkiaren Saria 1995, Humanitate eta Giza Zientzien alorrekoa. Eta ezin dugu ahaztu margolari gisa egiten zuen lan oparoa, bere ikerketa askoren osagarri.

Julio Caro Barojaren lan haundi horren ikuspegi osoa izateko, oso era zehatzean egingo badugu ere, hiru taldetan banatuko dugu lan hori.

Caro Barojak egin zituen ikerketen artean, badira gure Herriarekin zerikusirik ez duten lanak, beste batzuk Euskal Herria zertxobait ukitzen dute, eta hirugarren batzuk Euskal Herriari buruzkoak edo bere ingurukoak dira.

Lehen taldearen adibide gisa emango ditugu, esate baterako, *Los moriscos del Reino de Granada*, *Estudios saharianos* eta *La cara, espejo del alma. Historia de la fisiognómica*.

Bigarrenen artean aipatu ditugu *Los Judíos en la España Moderna y Contemporánea* (hiru liburuki). *El Carnaval*, *Los pueblos del Norte de la Península Ibérica*, *Los Baroja*, eta *Las brujas y su mundo*. Azken lan honetan jaso du Julio Carok *Larunbata akelarren* olerkia, Serafín Baroja bere aitona eta idazle zenak egina.

Azken sailean sartuko genituzke *La vida rural en Vera de Bidasoa* –aurreneko argitalpena 1944koa da–, *Los vascos*, *Vasconiana*, *Introducción a la historia social y económica del Pueblo Vasco* eta *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*.

Hemen esan beharra daukat Julio Caro Barojak euskara oso ondo ezagutzen zuela, eta hitzegitea ere gustokoa izaten zuen hartarako aukerarik zuenean, behin baino gehiagoetan neronek ikusia. Batez ere, nekazari munduan, euskaraz mintzatzea atsegin izaten zitzaion, astiro astiro.

Gainera esan behar Julio Caro Baroja hamabi urtez izan zela *Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkaria - Revista Internacional de Estudios Vascos* (R.I.E.V.) ezagunaren zuzendaria, bere bigarren saioaldian; argitalpenaren koordinatzailea izan nintzen aldetik, ikusi ahal izan nuen inoiz ez zela euskara baztertzearen alde agertu.

Esandakoa argi uzteko egoki deritzot RIEV aldizkariaren bigarren etapako lehen alean idatzi zuen hitzaurrearen zatia irakurtzeari:

“Con relación al idioma juzgo lo que sigue. La R.I.E.V. fue ‘internacional’ desde el punto de vista lingüístico. Claro es que el idioma, el vasco, el ‘euskera’, era objeto de primera y acaso máxima atención. Claro es, también, que en ella se publicaron muchos textos vascos antiguos y que un número sensible de colaboradores escribieron en la lengua vernácula. Pero otros lo hicieron en lengua castellana; otros en francés y aun en alemán. (...) Una publicación de alto nivel tiene que mantener esta línea, aunque hay que reconocer que el plurilingüismo no sea del todo cómodo”.

“Por otra parte, ‘Eusko Ikaskuntza’ tendrá que hacer en lo futuro una revisión del concepto de ‘Estudios Vascos’ (...), que en una publicación que empieza a salir aquí, en 1983, haya artículos sobre disciplinas tales como la Economía, la Sociología, la Psiquiatría, etc., parece tan necesario como que se sigan cultivando los viejos temas de Lingüística, Antropología y Prehistoria”.

Aurrekoa irakurri ondoren, esan behar dut aldizkariaren zuzendari eta koordinatzailearen arteko harremana lagungarria, eroso eta oso atsegina izan zela niretzat, Julio Caroren gaitasunari eta bihotz zabalari esker.

Orain galdera egin behar diogu geure buruari: Zer izan da Caro Baroja kultur munduan? Askorentzat, zalantzarik gabe, erraz erantzuteko galdera da. Julio Caro antropologo aparta genuen. Hala izanda ere, erantzun erosoia besterik ez da, Antropologia itzal haundiko teilatu hegala baita, ikerketa asmo ugari babesten dituen.

Jakintsua izan da Etnografia jorratzen, esaten du ez gutxik, eta egia da; Julio Caro Baroja maisu aurreratua izan zen etnohistoria sozialean, diote beste batzuk, eta hala da.

Julio Caro Baroja guzti hori izan zen; baina dezente gehiago ere izan zen. Caro Baroja pentsalari argi eta ikusgarria ere izan zen, Pentsamenduaren munduko gizona, iritzi eta esateko zorrotzetan adierazitako Pentsamenduarena, interesa zuen arloaren ikerketa eta ezaguera sakonaren ondorioa; horregatik, zintzo eta justiziazko zerbait deitzekotan, erostezinezko gizona deitu beharko genioke.

Nire liburuen artean daukat bere *El laberinto Vasco*. Hemen aurkitzen den lanak ez du gaurkotasunik galdu, eta merezi du ahaztu gabe gogoan gordetzeak.

“Si hay una ‘identidad’, hay que buscarla en el amor. Ni más, ni menos” dio Julio Caro Barojak.

“Amor al país en que hemos nacido o vivido. Amar a sus montes, prados, bosques, amar a su idioma y sus costumbres, sin exclusivismos.

Amor a sus grandes hombres, y no sólo a un grupito entre ellos. Amor también a los vecinos y a los que ‘no son como nosotros’.

Lo demás, es decir, la coacción, el ordenancismo, la agresividad, el lanzar las patas por alto no es signo de ‘identidad’ (...).

En todo caso hay muchas cosas que salvar en este país en paz, en armonía y en hermandad. Y la única posibilidad de creer en unidades, identidades y cosas por el estilo, es cultivar el amor. Porque en otro caso, sí; podemos tener otra identidad, otra unidad de destino. La que se tiene en los mismísimos infiernos. La que dan los diablos(...).”

Julio Caro Barojak lege oneko adiskidetasuna gurtzen zuen, interesik gabeko adiskidetasuna. Julio Caro Barojaren maisutasuna eta adiskidetasuna gozatzeko zoria izan dugunok, ezagutzen genituen Itzeako jakintsuaren nortasuna aberasten zituzten giza-kualitateak, gure mugen barruan eta mugez kanpo aitortpena eta errespetua irabazi dituen lanaren egilea.

Oso egokia delako, eta ez dut lehenengo aldia, Fray Luis de Leónen bertso eza-gunak ekarriko ditut gogora:

*qué descansada vida
la del que huye del mundanal ruido
y sigue la escondida senda
por donde han ido
¡los pocos sabios
que en el mundo han sido!*

Séneca-k dio pertsona batzuk bizi egiten direla eta beste batzuk iraun egiten dutela. Zalantzarik ez dago, Julio Caro Baroja gogotik bizi izan zela, anaiarteko maitasunez inguratuta.

Eta bizi izan zen lehenaldia esate hori, zabaldu egingo dugu orainaldira eta etorkizunera, utzi digun balio estimaenezko lanari esker. Eta hau da Kriminologiaren Euskal Institutoaren nahia, benetako nahia.

(Del texto que corresponde a la intervención en el homenaje a D. Julio Caro Baroja organizado por la RSBAP, en la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, el 7 de noviembre de 1995).

13

Tenores religiosos producidos por una fuerza
 aniquiladora, tenores bélicos y políticos,
 asociados o no con la misma. Su examen
 y consideración no nos servirá, sin
 embargo, para avanzar demasiado en
 el propósito de establecer una tipolo-
 gía del "Terror", desde ~~ahora~~ ^{ahí} punto de
 vista psicológicos, sociológicos y etno-
 lógicos. El mundo judeo-cristiano guar-
 dita mucho sobre nuestra conciencia.
 Pero hay que considerar ^{ahora} otros más
 enigmáticos. Volvamos la página.

Autógrafo de Julio Caro Baroja, "El terror desde un punto de vista histórico".